

Inauteriak Deba 2024

MOZORRO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Noiz: Otsailaren 10ean, larunbata, **12:30ean** Agirre jauregitik mozorro desfilea hasiko da, eta ondoren, Foruen plazako eszenatokian lehiaketa egingo da.

2. Modalitateak: Banaka eta taldeka.

3. Mozorroak: Gaia librea da.

4. Izen ematea: Otsailaren **2tik 9ra Turismo bulegoan, 943 192 452** telefonora deituta edota **turismoa@deba.eus** helbidera idatziz. Egunean bertan, Foruen plazan jarriko den eszenatokiaren alboko **mahaian (11:00-12:00)**.

Mozorro lehiaketan izena ematen duten taldeek eta norbanakoek desfilearen amaieran Foruen plazan jarritako eszenatokiaren gainean argazki bat atera beharko dute.

5. Desfilearen ibilbidea: Agirre jauregia - Astillero kalea - Lersundi kalea - San Roke kalea - J.M. Ostolaza kalea - Plaza Zaharra - Itur kalea - Foruen plaza.

6. Sariak:

Saritutako mozorroak epaimahaiak eta herritarrek aukeratuko dituzte. Zortzi sari izango dira:

16 urtetik gora:

• **Taldea:**

- **Epaimahaiaren saria: 300** euroko bonoa ALVAREZ tabernan.
- **Herritarren saria: 300** euroko bonoa IZENBE tabernan.

• **Banakakoa:**

- **Epaimahaiaren saria: 150** euroko bonoa ZALBURDI tabernan.
- **Herritarren saria: 150** euroko bonoa LOREA tabernan.

16 urtetik behera:

• **Taldea:**

- **Epaimahaiaren saria: 100** euroko bonoa LOREA tabernan.
- **Herritarren saria: 100** euroko bonoa ZALBURDI tabernan.

• **Banakakoa:**

- **Epaimahaiaren saria: 50** euroko bonoa ZALBURDI tabernan.
- **Herritarren saria: 50** euroko bonoa LOREA tabernan.

Sari bakarra eskuratu ahal izango da.

7. Herritarren bozketa: 14:00-15:00 udaletxeko arkupetan jarriko diren hautetsontzietan (16 urtetik gorakoek bozkatu ahal izango dute).

Banakako nahiz taldekako mozorroak bozkatzeko aukera izango da.

8. Sari banaketa: 20:00etan Foruen plazan.

